

PRENTSA OHARRA 2019.10.11

Zazpi euskal enpresa Mipcom azokan

Euskal Herriko ikus-entzunezko enpresak, EIKEN, Etxepare Euskal Institutua eta Zineuskadirekin batera, ohikoak dira Cannes-en egiten den entretenimendu edukien azoka garrantzitsu honetan.

Urriaren 14etik 17ra Mipcom azokaren edizio berri bat egingo da Cannesen eta, aurten ere, Euskal Herriko hainbat enpresa bertaratuko dira Basque Audiovisual izenaren aterkipean. Ekitaldia sektorea nazioartekotzeko plataforma garrantzitsua da, hori dela eta, EIKEN, Basque Audiovisual and Digital Content Cluster; Etxepare Euskal Institutua eta Zineuskadiren babesa eta laguntza dute enpresok.

Entretenimendu edukien munduko azoka garrantzitsuenetakoa da Mipcom eta nazioarteko eragile nagusien topagunea bilakatzen da lau egunez. Mundu osoko ekoizle, banatzaile eta erosleekin harremanak egiteko aukera eskaintzen du topaketak, Euskal Herriko enpresek sortutako eduki eta formatuen nazioartekotzea ahalbidetuz. Halaber, ezinbesteko hitzordua da sektorearen joera berrienak ezagutzeko eta telebistarako mundu mailako estreinaldiak erakusteko.

Aurten, **Expressive Media Projects, J.O.K Films, LA Ekoizpenak, Lotura Films, Pausoka Entertainment, Sayaka Producciones eta Serñor & Señora** izango dira Basque Audiovisual gunean egongo diren enpresak. Hauen animazio produktu, dokumental, film, formatu eta multimedia produktuak merkatuan banatuko den Basque Audiovisual katalogoan jasoko dira. Halaber, EIKEN, Etxepare Euskal Institutua eta Zineuskadi ere bertan egongo dira, nazioarteko kontaktuen sarea indartu eta euskal enpresentzat negozio aukerak sortzeko helburuarekin.

Merkatu honetan parte hartzeak euskal produktuak saldu, ekoiztu, ezagutzera eman eta nazioartekotzeko aukera eskaintzeaz gain, beste herrialdeetako sortzaile, ekoizle, banatzaile eta ikus-entzunezko eta eduki digitalen balio kate osoan parte hartzen duten profesionalekin bat egitea ahalbidetzen du. Hori dela eta, EIKEN, Etxepare Euskal Institutuak eta Zineuskadik helburu bezala jarri dute gure lurraldearen sustapena, Euskal Herria nazioarteko ekoizpen gune bezala aurkeztuz.

+Info

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileak plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus
www.etxepare.eus